

DE AVIONES Y MAIZALES
TIERRA DE DURANGO
URKIOLA, 20 URTE
ETORKINAK

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO
URTEKARIA

3. zk 2009
5e

ANIASTJUC GAITA ATIAĞ DULTZAINA DURANGALDEAN

TEXTO: **JON GAMINDE TERRAZA**

INSTRUMENTUAREN IZENA: Bertako dantzak bideratzeko instrumentu erabiliena danbolina (txistua) izan den eta den herrialdean, gure instrumentuarekin jarduten dugunean, bi galdera egin ohi dizkigute: Zer izen du horrek? –instrumentua erakutsiz– edo, nongoak zarete? edo zehatzago esanda, ea Lizarrakoak ote garen. Lehenengo galderari gure lagun batzuek erabiltzen duten beste galdera batekin erantzun ohi diogu: Zuk nola esaten duzu, kotxea edo autoa? Bada, honetan ere, berdin, gaita edo dultzaina...

Musika tradizionaleko instrumentuei dagokienez, sarritan aurkitzen dugu izen bera gauza desberdinak izendatzeko; esaterako, Sanabria-Zamorako eskualdean gaita esaten diote guk txistua deitzen dugunari (lurretan bada hango gaitero bat, batzuetan kalejiran jotzen duena), guk poltsa-gaita deitzen dugunari kornamusa edo galiziar gaita esaten diote, eta zarrabeteari Zamorako gaita.

Alderantziz ere, gauza bera izendatzeko izen desberdinak aurkitzerik ere badago: hiru zuloko moko-txirulari, gaztelaniaz *silbo* edo *pito* edo txistua esaten zaio.

Txistuaren kasuan, instrumentu hori jotzen duenari "danbolinerua", "txanboliterue", "txanbolin" deitu izan zaio (Berrizko Amezuatarrak) luzaroan; izan ere, dantzetan beraren zeregina funtsezkoa izanik, garrantzi

handiagoa izaten du danbolinaren laguntza erritmikoak, melodiak berak baino.

Azalpena gehiago zehazteko, gaiari buruzko artikulu baten bi lerroalde ekarriko ditugu. Artikulu horri egileek (*Iruñeko Gaiteroek – Gaiteros de Pamplona*) izenburu hau ipini zioten ironikoki: "*El nombre de la rosa*", eta Iruñeko Udalak 1993. urtean, Temas pamploneses bilduma laburraren barruan argitaratutako "*Gaiteros en Pamplona y gaiteros de Pamplona*" lanarekin batera argitaratu zen.

"Las cosas no se llaman, a las cosas se les llama; es decir no tienen nombre propio, sino el que les da el usuario."

"Existe una denominación antigua, que en Navarra es común al Euskara y al castellano que es la de gaita. Con este nombre va produciéndose





 Erromeria Abadiñon. Indalecio Ojanguren. AGG-GAO-OA 00934.

la creación del instrumento actual y con este nombre lo designan sus usuarios y consumidores. La introducción de la palabra dulzaina supone un intento de dignificar el instrumento en base a la imposición de un término extraño al país.” (Ilmo. Y Rvdmo. Sr. Joab Joanis de Echalar, Obispo de Calahora, en 1647)

XVII-XVIII mendera bitarte oso ohikoa zen gaita izenaren ordeze une jakin batean dultzaina izena agertzen delako teoria berresten duen daturik badago.

“El mismo Prelado giró Visita Pastoral, el día 25 de agosto de 1655, acompañado del señor Chantre, Secretario, criados y acompañamiento”


“Otro si mandó que ninguna gaita se toque ni se danze dentro de la Iglesia y cimiterios pena de excomunió y dio comission al Rector para ligar y absolver y si fuese necesario Rescibir ynformacion contra los Rebeldes. (Auto de visita). (URKIOLAKO ANTONIO SANTUEN SANTUTEGIKO AIPAMEN HISTORIKOA -Benito de Vizcarra y Arana – Gasteiz. 1932).

“yten al gaitero, por no haver tambolintero, el día de Santa Ana seis Rs y al tambolintero el día de Santo Domingo quatro Rs.” (SANTA ANA parrokia - Durango 1638-1691 Fabrika-liburua - Durangoko Artxibategia. 1683-12-25etik 1684ra bitarteko kontuak) – 160. folioa).

“Que de noche no haya viguiras con tamboril ni gaita en ninguna casa de la jurisdicción” (ELORRIOKO UDAL-ARTXIBATEGIA – 1695. urtea - Foru-artxibategiko saila - 41. karpeta, 269. paper-sorta).

Moralidad de costumbres de la Villa de Durango a la luz de los Bandos de Buen Gobierno. (siglos XVI-XIX): *“El Bando de 1694 es idéntico a los anteriores, con el añadido siguiente: “Que atento que es en gran deservicio a Dios Nuestro Señor y escándalo, el que los mozos y mozas anden juntos, asidos del brazo a brazo, de día y después de anochecido, decretaron sus Mercedes, no lo hagan, pena de 500*

maravedís, contra el mozo 10 días de cárcel y, so la misma pena y de que se procederá a los demás que hubiere lugar, nadie se atreva a tocar gaita, ni tamboril habiendo anochecido; ni después de este tiempo anden los mozos oficiales ni aprendices, ni otras personas agavilladas, ni con armas prohibidas, si no que estén en sus casas recogidos y quietos porque de lo contrario se suceden escándalos y alboroto”. (1694. urtea . DURANGO HIRIBILDUKO OHAR HISTORIKOAK (V) .- José María Larracochea Bengoa- 10. zenbakia).

 Mañaria. Durangaldeko dultzaineroak. Juan, Txomin eta Dionisio Bilbao, Justo Ortuoste, Gorrotxategi eta Luis Berrizbeitia.



Instrumentua

“Gaita zurezko haize-instrumentua da, mihi bikoitzekoa eta hodi labur eta konikoduna. Mihi bikoitzak oso soinu harmoniko aberasgarriak eragiten ditu, hodi zabalaren eraginez soinua oso indartsua da. Hodi laburrak soinu zorrotza eragiten du, eta konikoa denez, instrumentuari oktabak aldatzea ahalbidetzen dio”.

Definizio horrek instrumentuaren ezaugarri buruzko aztarnak ematen dizkigu: oso tinbre berezia eta berezitua ditu, eta hein handi batean, hori izan da beste batzuen inguruan –oboa, klarineta edo saxoa– kokapen hobearrekin bizirautea ahalbidetu diona, besteek jarduereremu zabalagoa baitute, bai musika klasikoan bai joera modernoagoetan (jazza, etab.).

Gu tinbreak bultzatu gaitu instrumentu hau hautatzera zenbait ideia musikal garatzeko eta horretaz gozatzeko.

Bizkaian eta zehatzago esanda, Durangaldean, instrumentu horren ezaugarriak goian aipatutakoaren zertxobait desberdinak dira.

Batez ere metalezko instrumentuak aurkituko ditugu, bereziki letoia alpaka eta zilarrezko aleazio batekin estalia, eta horien fabrikatzaile nagusiaren izena (horrela sinatzen zuen behinik behin) Juan Pradere-Durango izan zen.

Iñaki Irigoien datuen arabera, Pradere instrumentuaren lehenengo erreferentziak 1747. urtekoak dira Durangon, eta Guillermo de Pradere izeneko bat agertzen zen, galdaragile

eta erlojugilea. Data horretatik aurrera, beste Pradere batzuk agertu ziren, jatorriz frantsesak.

Itxuraz instrumentuaren fabrikatzailea izan zena 1844. urte inguruan jaioa zen, Arguenoseko Beltrán Pradere jaunaren eta Arrasateko Eulalia Uribezalgo andrearen semea. Beteluko (Nafarroa) Josefa Arzadun andrearekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituen. Seme-alaben jaiotze-agiri guztietan galdaragile gisa agertzen da. 1908ko otsailaren 23an hil zen Durangon, heriotza-agirian jasota dagoenaren arabera.

Hari buruzko agirietan jasotako datuen arabera, leku askotan bizi izan zen familia zen, Frantziatik etorriak, eta haien ahaidekotzat jotzen diren asko inguruetan kokatu ziren, esaterako, Arrasaten bizitzen jarri zen anaia edo lehengusuren bat, eta dultzaina metalikoak ere fabrikatu zituen, Pradere-Mondragon markarekin.

Gaita-dultzaina metaliko horiek gaur egun erabiltzen ditugun zurezkoen antzeko neurrikoak dira, baina eragiten duten soinua zurezko gaitenak baino distira txikiagoa dauka.

Gure eskuetan izan ditugun Pradere markako instrumentuak konparatzerik izan ez dugunez, ezin dugu baieztatu fabrikatzaile beraren dultzaina metaliko guztiak neurri berekoak direla, baina euren artean oso alde txikia dagoela uste dugu; beraz, hein batean, instrumentua finkatzen eta estandarizatzen aitzindaria izan zela esan daiteke.

Fabrikatzaile horrez gain, izan dira beste batzuk ere –V. Eguiguren-Azpeitia markakoak



- 1. Dultzaina Pradere. Iruñeko gaiteroak.
- 2. Dultzaina Pradere. Olabarrieta, Goierri-Erandio.
- 3. Maumeke "Txaparro"aren dultzaina.
- 4. Iruñeko gaiteroak.





kasu-; organo-fabrika bat zen, baina beste instrumentu batzuk ere egiten zituen.

Fabrikatzaile horiek guztiek –Pradere, V. Eguiguren eta “Montte”– euren instrumentuak saldu eta hedatu dituzte Durangaldean eta inguruetan 1870. urtetik –XIX. mendearen amaiera– 1980. urtera –XX. mendearen amaiera; ia mende bat modan jarri zuten instrumentuarekin.

Baina aldi horren aurrekoa, bitartekoa eta ondorengoa ere kontuan hartu behar ditugu.

Aurretik ere erabili izan da gaita, zurezkoa gure ustez, eta Bizkaian instrumentu horren presentziaren eta erabili izanaren lehenengo datua 1729ko agiri batean agertzen da. Agiri horiek “Inauterietan gertatutako jazoera bati

buruzko auzi” bitxi bati buruzkoak dira, eta bertan Thomas Crayn Mayster izeneko bat aipatzen da Bilboko aldirietan dultzaina jotzen.

Geroago ere, Sakramentu Santuaren Kofradiako kontuetan agertzen da honako ordainketa hau: *“veinte y nueve Rs vn entregados a Carambolla por una dulzaina con sus pitas para Bustrin”* eta beste honako hau ere bai: *“48 Rs vn entregados a Bustrin para las comidas durante la octava”*. Aipatutako Bustrin hori hurrengo urteetako Durangoko kontuetan ere agertzen da, txistuaz gain, dultzaina jotzen.

“It a Manuel Joseph de Bustrin ciento y veinte reales por tocar la Dulzaina en las funciones de Corpus de este año, consta de libramiento y recibo”... (1742. urtea – DURANGO HIRIBILDUKO ARTXIBATEGI HISTORIKOA - 10. kontu liburua - 1737-1754 - Arte eta Historia Museoa).

Geroago, Fernando VII. eta haren emazte Maria Josefa Amalia errege-erreginak Durangon izan zirela eta, 1828ko ekainaren 14, 15 eta 16an.

“Por la tarde del mismo día, presenciaron SS.MM. los festejos que se habían dispuesto para obsequiarlos; unos jóvenes escogidos bailaron trayendo en la punta de un palo largo un muñeco, denominado “Dominguillo”, que hacía visajes y posturas al son de la música que hacía reír a las gentes; unas jóvenes teniendo en sus manos arcos bailaban contradanzas y seguidamente sacaron un baile largo que llaman zorzico los señores del Ayuntamiento, siendo primera mano el señor Alcalde, de forma que, a competencia, parecía a todo el concurso



Mañaria. Juan eta Karmelo Bilbao.

de paisanos de ambos sexos, les quería imitar mayormente a vista de la música que tañían los tamborileros y partidas de dulzainistas y alboqueros que para el efecto se les contrató.

“Por la noche se iluminaron a porfía todas las casas del pueblo y discurrieron por él mil alegres tropas de tamboriles, albugues y dulzainas” (DURANGO HIRIBILDUKO OHAR HISTORIKOAK --José María Larracoechea Bengoa. 5. zenbakia).

1886ko uztailaren 24, 25 eta 26an egindako Euskal jaietako egitarauan ere haxe aurkitu dugu:



Katxarrerue.

“3º Concurso de gaiteros o albugeros, en el que cada opositor ejecutará dos piezas de libre elección en aires bascongados ; premio, un albugue con incrustaciones de oro y plata.

6º Concurso de bandas de albugeros o gaiteros que ejecutarán dos piezas de libre elección en aires bascongados ; premio 200 reales vellon ; se exige acompañamiento de atabal o tambor.” (“Fiestas Euskaras en la Villa de Durango en los días 24,25 y 26 de julio de 1886. Bilbao. Imp., Lit. y Lib, de Juan E. Delmas, Correo 24 - 1886”)

Eta txapelketaren emaitza honako hauxe izan zen:

"Gastos de las Fiestas Euskaras

"Por una dulzaina plateada grabada y damasquinada" 300

"23 - Concurso de dulzaina o albogues en piezas de libre elección en aires bascongados".


... "dulzainistas y albogueros" ... "Manuel San Sebastian (dulzainero)" ... (DURANGOKO UDAL ARTXIBATEGI HISTORIKOA – Euskal Jaien karpeta – 1. eta 2. kutzak. Euskal jaien gastuak).

Praderetarren jardueraren goraldiak iraun zuen bitartean, argi dago metalezko instrumentuaren erabilera ezarri zutela, eta gaur egunera arte iraun dutenen kopurua kontuan hartuta, garai hartako gaitero-dultzaineroen artean oso estimatuak zirela ondoriozta daiteke, Bizkai osoan hedatu baitziren Juan Pradere-Durango markarekin.

Dena dela, lehen esan dugun bezala, ez zen bera izan metalezko dultzainak fabrikatzen zituen bakarra, "markarik" gabeko dultzainak ere aurkitu ditugu, eta horiek beste fabrikatzaile batzuenak izan daitezke, edo bestela, Pradere dira, baina "zigilu" edo "markarik" gabe.

Metalezko instrumentuen goraldi horretan, Abadiñon garaiko dultzainero-gaiterorik ospetsuena bizi zen, Julian Azurmendi "Katxarrerue" (1864-1929), eta horren harira dator aurreko guztia, baina bitxikeria batekin: erromerietara ebanozko? zurezko gaita-dultzaina batekin joaten zen. Haren eragin-eremua handia izan zen: Bermeo eta Gernikako erromerietatik hasi eta Zumarraga, Santa Luzia, Santa Isabel eta Elgoibar inguruetaoetara.



 Nikolas Jaio eta Pedro J. Etxebarria "Txaparro".

"JULIAN AZURMENDI E IGUNZA, mayor de edad y vecino de Abadiano" ... "establecer un puesto o corro de dulzaina durante las fiestas de San Antonio" ... "conceder licencia" ... "formado el mencionado corro de dulzaina, previo pago de los impuestos establecidos" ... 3-6-1930. (1930. urtea – DURANGO HIRIBILDUKO ARTXIBATEGI HISTORIKOA. Jaietako karpeta - hainbat orri).

Eta jakin izan dugu musikari horrek garaiko beste dultzainero ospetsu batekin ere –Francisco Monasterio Bilbao "Drogas"ekin– harremana zuela. Haren alabak esan zigun etxera Abadiñoko Julian Azurmendi izeneko bat joaten zitzauela.

Fabrikatzaileen gaiari jarraituz, Parisetik ere Martin Frère-Paris marka iritsi zitzaigun, eta marka horretako zurezko hiru instrumentu ezagutzen ditugu.

Juan Pradere hil ondoren (1908), hainbat urte daude Errepublikaren aurkako altxamendu militarra eta osteko ondorioak iritsi arte. Urte horietan euskal kultura arloko jarduera handia dago, eta bilakaera handia da: hainbat ezpata-dantzari eta ardazlariren taldeak sortu ziren, euskal jaiak (XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera), finean, inguru nazionalistetatik euskal kultura sustatzeko ahalegina egin zen.

Baina hori guztia gerrak zapuztu zuen, eta gure musikariak ez ziren aparte geratu. Mañariko Fermin Ortuoste dultzaineroaren kasua, esaterako, Sopela-Urduliz inguruetan ezkutatu zen.

Gertakari horien ondorioz, gerraostean Lizarrako dultzainero-gaitero ospetsuak agertu ziren. Lizarrako gaiteroak agertu zirenean beste musikari batzuen kontratazioak eten egin ziren, bertakoak izanik ere, musika ez bestelako gai batzuegatik ez oso estimu handitan hartuak zirenak. Eibarren, Elgoibarren, Durangon, Lekeition, Ondarroan eta beste herri batzuetan lortu zuten ospea hain handia izan zen, gaur egun ere oraindik kontratatzen dituzte.

Carta de: ELIZAGA HERMANOS - HIJOS DE ANSELMO - GAITEROS DULZAINEROS
menbrete: Constructores de Gaitas, Tambores y Boquillas. Parches sueltos.
Música para una o dos dulzainas.
 ----(Se ofrecen para las fiestas de la liberación los días 27, 28 y 29 de abril. Cobran "1.000 pesetas, más la manutención ahí por cuenta de ese Ayuntamiento ; Siendo de nuestra cuenta los viajes, tengan en cuenta que los

viajes nos cuestan 200 pts. sin echarnos una copa de agua, y que invertimos cuatro días....." Firma la carta Moises Elizaga. (1951. urtea - DURANGO HIRIBILDUKO ARTXIBATEGI HISTORIKOA. Jaietako karpeta - hainbat orri).

Dena dela, kanpoko musikariak kontratatzeko ohitura ez da gerraosteko ohitura soilik, antzinatik dator.

Horiez gain, urte askoan etorri izan ziren dantzariak Alfaro, Iruñea, Logroño, Tuteran, Valentziako gaiteroekin batera.

Valentziako dantzariak ere izan ziren Durangon, musikariak zein zituzten zehaztu gabe, baina gure ustez gaiteroak izan daitezke, hori baita gure herrietan ibiltzen ziren konpartsa horien ohiko instrumentua.

Nº 31 - ... "50 Rs pagados a los Danzantes Balencianos que danzaron en la Plaza de Santa María como consta de libranza" ... (DURANGO HIRIBILDUKO ARTXIBATEGI HISTORIKOA – 8. kontu liburua – 1653-1705. Arte eta Historia Museoa (1690-9-29tik 1691-9-29ra bitarteko kontuak) 447 folioa).

Badugu esaterik dultzaineroak izan zirela Elorrión 1910, 1913, 1915, 1923 eta 1934. urteetan. (ELORRIOKO JAI-EGITARAU – 1913 – irailaren 7, 8 eta 9an – Feria Nagusikoak).
 Día 7 ... Banda de Música de Amorebieta denominada "La Juventud Zornozana".
 Tamborileros de la villa y dulzaineros recorrerán las calles de la misma, Gran Novillada, banda de música, tamborileros y dulzaineros, romería,

fuegos artificiales, alternando la música tamborileros y dulzaineros... (ELORRIOKO UDAL-ARTXIBATEGIA – Foru-artxibategiko saila - 110. karpeta, 1403-1414. paper-sorta).

Musikarekin zerikusirik ez duten gertakari horien guztien ondoren, kultur jarduera berreskuratzeko ahaleginari ekin zitzaion, eta hainbat dantza-talde, abesbatza, eta abar berragertu ziren, eta gaur egunera arte iritsi dira –oso garrantzi txikiaz, zoritxarrez– ezagutu ditugun azkeneko dultzainero-gaiteroak.

Durangaldeko gaitero-dultzaineroak

Julián Azurmendi Ingunza, “Katxarrerue”, (1864-1929) Artaun-Diman jaio eta Abadiñon bizi izan zen. Amerikan ibili zen lanean. Danborrarekin semeak laguntzen zuen. Oso ospetsua izan zen, eta eragin-eremu handia izan zuen.

Durangon bizi izan dira eta elkarrekin harreman handia izan dute ezagutu ditugun bi dultzainerok:

Pedro J. Etxebarria, “Txaparro”: Muxikan jaio eta Maumen bizi zen, eta baserritik Durangora jaitsi ohi zen. Danborrarekin beste dultzainero batek laguntzen zion, arazo fisikoak zirela eta dultzaina jotzeari utzi behar izan baitzion: Nikolas Jaio zen, Ibarrrin jaio eta Durangon bizi zen, eta lurretako trikitilari egunean elkartu ohi ziren.

Juan Bilbao Ortuoste. (Mañaria 08-05-1905/ 31-12-1991). Haren anaia Manuel ere dultzaineroa izan zen. Melillan hil zen



Patxi, Juan eta semea Karmelo Bilbao lurretan trikitilari egunean.

1922an, soldadutza egiten ari zela. Dultzaina berreskuratu zuten, eta Juanek 12 urterekin ekin zion musika-ibilbideari.

Fermin Ortuoste lehengusua eta Txomin anaia danborrarekin izaten zituzten laguntzaile. Geroago, eta musika-ibilbidearen azkenetan, Karmelo semea izan zuen danborrarekin laguntzaile. Inoiz Iruñeko gaiteroek aho-piezak egin zizkieten, eta berak zioenez oso material ona zen.

Aho-piezak

Orain arte gauzaren txasisari buruz luze jardun dugun arren, motorra ere oso garrantzitsua da. Kanaberazko mihi bikoitza da; oro har, dultzaineroek eurek egiten dituzte, baina kasu batzuetan erosi ere egiten dituzte, Gaztelatik edo Valentziatik inportatuta. Beste batzuek, Juan Bilbaok kasu, bertako produktua nahiago izaten zuten, eta Iruñeko Gaiteroen aho-piezak erabiltzen zituzten.

Musika

Orokorrean, ezagutu ditugun azkeneko dultzaineroek erromerietan entzuten zutenaren arabera jotzen zuten musika, eta batez ere jotak, porruek eta martxak izaten ziren, edo

Juanek berak esaten zuen bezala: lehenengoa, “bigarrena eta martxa”.

Beste erritmo batzuk ere jotzen zituzten eta erreperitorioetan jasotzen zituzten: pasodobleak, baltseoak, hainbat ereserki, eta gustuko zuten eta entzuleak dibertitzeko balio zuen edozer.

Batzuetan binaka jotzen zuten, adibidez, Juanek Bargondia-Dimako bere lehengusu Patxi Bilbaorekin jotzen zuen, aparteko dultzaineroa bera.

Estiloa eta askatasun-eremua

Argi dago Bizkaiko berezko estiloa izan bazela, eta defenditu egin behar dela.

Urkiolan, Santa Eufemian, Oizen, Deustun, Etxetxuan, eta abarren jotzen zuten dultzaineroak, eta bestelako musikariak, akordeoi-joleak etab. ez ziren kanpoko mundutik bereiz biziko, beraz, guztien joan-etorri ugariak baliatuz, euren erreperitorioetarako zentzuzko hautaketa egingo zutela iruditzen zaigu.

Instrumentu bakarlari batekin jotzeak (eta bakarrik sarritan) ez du esan nahi afinatu behar ez denik eta notak ondo jo behar ez direnik, eta are gehiago binaka edo beste instrumentu batzuekin jotzean. Baina instrumentuak kalean iraun dezan nahi badugu, exijentzia horrek gorena izan behar du.

Behinola, Bilboko Areatzan jotzen ari ginela, Etxebarria abizeneko Arratiako –Igorreko hain zuzen– agure beneragarri bat goian aipatu ditugun galderak egiten hasi zitzaigun. Azkenean, elkarrizketa atsegin baten ostean, guk geuk egin

genizkion galderak: Eta zuk, ezagutu al duzu dultzainerorik? Eta zalantzarik gabe erantzun zigun: dultzaineroak gutxi, endredatzaileak asko. Gaitero klasikoei dagokienez, herri baten ezaugarri izan den bizimodu musikalaren defentsan erakutsi duten berotasuna, kemena eta leialtasunagatik guztiei (eta euren familiei kasuren batean) eskerrak ematea baino ez daukagu.

Gaur egungoei dagokienez, aipamen labur bat egin dut: 1986an gaita-akademia bat jarri zuten abian Durangon, eta bertako hainbat ikasle jaietan jotzera ere iritsi ziren, “zezenak dira” izenekoetan: Ander Ercilla, Jose Ignacio Azurmedi “Txusmen”, Iñaki Jaio, Koldo, Jaime, Joxi, Aitzol Mendiola, eta Gasteizen bizi den arren, tarteka, gaita aldean duela, Durangon agertzen den Txutxo.

Eta artikulua hau amaitzeko, eskerrak eman beharrean nago: Gerediagari, lerro hauek idazteko aukeragatik; Iñaki Irigoieni eskaini dizkidan datu historikoengatik; izan ere, horiek gabe ez luke zentzurik izango artikulua honek, eta materiala utzi didaten guztiei.

Azkenik, Iruñeko Gaiteroei, Javier Lakunza eta Jose Luis Fraileri, gaur egun Durangon, lurretan, Berrizen, Ermuan, Elorrioren, eta abarren gaitaren doinuaz gozatzen segi dezagun lortu dutelako, beharrezko materialak –gaitak, aho-piezak, etab.– eta materialok erabiltzeko ezagupenak helarazi dizkigutelako, horrela, instrumentuaren hobekuntza ukazina bihurtuz. **a**

Jon Gaminde Terraza

Bizkaiko Gaiteroak